

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA

Arabako Mendialdeko Kuadrillako udal-hondakinen bilketa arautzen duen ordenantzaren behin betiko onespena

Iragarkia 2025eko ekainaren 25eko ALHAOn (71. zk.) argitaratu zenetik, jendaurrean egon den aldiaren erreklamaziorik edo alegaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onartu da Arabako Mendialdeko Kuadrillako udal-hondakinen bilketa arautzen duen esparru ordenantza.

Santikurutze Kanpezun, 2025eko urriaren 20an

Presidentea

EDUARDO RUIZ DE LOIZAGA SANZ

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

**ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAN
UDAL HONDAKINEN BILKETA
ARAUTZEN DUEN ESPARRU
ORDENANTZA**

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

ZIOEN AZALPENA	6
I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK	10
1. ARTIKULUA. XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA.	10
2. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA.	11
3. ARTIKULUA. DEFINIZIOAK.	12
4. ARTIKULUA. ERAKUNDE ESKUDUNA ETA ESKUMEN ESPARRUA.	19
5. ARTIKULUA. ZERBITZUAK EMATEA.	20
6. ARTIKULUA. ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK ETA UDAL ESKUMENENKO HONDAKINEN TITULARTASUNA	21
7. ARTIKULUA. DEBEKUAK.	24
8. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNA.	25
9. ARTIKULUA. BESTE KUDEATZAILE BATZUK.	25
10. ARTIKULUA. KALE GARBIKETA.	25
11. ARTIKULUA. HONDAKINAK KUDEATZEKO ESKUALDEKO ZERBITZUAK FINANTZATZEA.	25
II. TITULUA. BILKETA ZERBITZUA	26
1. KAPITULUA. BILKETA ZERBITZUARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK	26
12. ARTIKULUA. ERABILTZAILEAK.	26
13. ARTIKULUA. ZER BILDUKO DEN.	26
14. ARTIKULUA. BAZTERTUTAKOAK.	27
15. ARTIKULUA. HELBURUAK.	28
16. ARTIKULUA. BILKETA ZERBITZUAN SARTUTAKO JARDUKETA OROKORRAK.	29
17. ARTIKULUA. BILKETA ZERBITZUEN MODALITATEAK.	29
18. ARTIKULUA. EDUKIONTZIAK, BITARTEKOAK ETA INSTALAZIOAK	30
19. ARTIKULUA. HONDAKINEN BEREIZKETARI ETA BILKETARI BURUZKO INFORMAZIOA.	32

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

20. ARTIKULUA. HONDAKINAK BEREIZTEARI ETA BILTZEARI BURUZKO SENTSIBILIZAZIOA, HEZKUNTZA ETA INFORMAZIOA.	32
II. KAPITULUA. EDUKIONTZIEN BIDEZKO BILKETA	34
21. ARTIKULUA. BILKETA ZERBITZUA	34
22. ARTIKULUA. SARBIDEA KONTROLATZEKO ETA ERABILTZAILERA IDENTIFIKATZEKO SISTEMA.	35
III. KAPITULUA. BILKETAREN ANTZEKO BESTE SISTEMA BATZUK	36
23. ARTIKULUA. BILKETAGUNEA	36
23.1 BILKETAGUNE FINKOA EDO GARBIGUNEA	36
24. ARTIKULUA. GARBIGUNEAREN KUDEAKETA.	36
25. ARTIKULUA. GARBIGUNEAN ONARTUTAKO HONDAKINAK.	37
26. ARTIKULUA. BILKETAGUNEEN ERABILTZAILERAK.	38
27. ARTIKULUA. ETXEKO ETA KOMUNITATEKO KONPOSTAJEA.	38
IV. KAPITULUA. HONDAKINAK BILTZEARI BURUZKO XEDAPENAK	39
28. ARTIKULUA. XEDAPEN OROKORRAK.	39
29. ARTIKULUA. JARDUERA EKONOMIKOEN ONDORIOZ SORTUTAKO HONDAKINAK BILTZEKO BERARIAZKO XEDAPENAK.	39
I. ATALA. OHIKO BILKETAK	40
30. ARTIKULUA. BIOHONDAKINEN BEREIZITAKO BILKETA.	40
31. ARTIKULUA. ONTZI ARINEN HONDAKINEN BEREIZITAKO BILKETA	41
32. ARTIKULUA. PAPER ETA KARTOI HONDAKINEN BEREIZITAKO BILKETA (MATERIAL HORRETAKO ONTZIAK BARNE)	42
33. ARTIKULUA. BEIRAZKO ONTZIEN HONDAKINEN BEREIZITAKO BILKETA.	42
34. ARTIKULUA. BESTE ZATIKI BATZUETAN SARTU EZ DIREN HONDAKINEN BILKETA -ERREFUSA-	43
2. ATALA. APARTEKO BILKETAK	43
35. ARTIKULUA. UDAL ESKUMENEKOAK DIREN SUKALDEKO OLIO ERABILIEN BEREIZITAKO BILKETA.	43

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

36. ARTIKULUA. EHUN HONDAKINEN BEREIZITAKO BILKETA.	44
37. ARTIKULUA. UDAL ESKUMENEO PARKE ETA LORATEGIETAKO LANDARE HONDAKINEN BEREIZITAKO BILKETA.	45
38. ARTIKULUA. UDAL ESKUMENEO TAMAINA HANDIKO HONDAKINEN BEREIZITAKO BILKETA.	45
39. ARTIKULUA. ETXEKO HONDAKINAK ETA UDAL ESKUMENEOAK DIREN ETA KUDEAKETA ZAILA DUTEN BESTE HONDAKIN BATZUEN BEREIZITAKO BILKETA.	46
40. ARTIKULUA. SENDAGAIEN ETA HORIEN ONTZIEN HONDAKINEN BEREIZITAKO BILKETA.	46
41. ARTIKULUA. GAILU ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOEN HONDAKINEN BEREIZITAKO BILKETA.	47
42. ARTIKULUA. PILA ETA METAGAILUEN HONDAKINEN BEREIZITAKO BILKETA.	48
43. ARTIKULUA. OBRA TXIKIETATIK ETA ETXEKO KONPONKETATIK DATOZEN ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN HONDAKINEN BEREIZITAKO BILKETA.	48
44. ARTIKULUA. ABANDONATUTAKO IBILGAILUEN BILKETA.	49
45. ARTIKULUA. HILDAKO ETXEKO ANIMALIEN BILKETA BEREZIA.	50
46. ARTIKULUA. BILKETA BEREZIAK.	51
KUADRILLAK JARDUKETA EREMUAN ANTOLATUTAKO EKITALDI ETA FESTETAN SORTUTAKO HONDAKINEN APARTEKO BILKETAK EGINGO DITU, BEHARREZKO DEN GUZTIETAN.	51
KASUAN KASU, UDALEK ETA/EDO ADMINISTRAZIO BATZARREK PREMIAZKO BILKETA ESKATU AHAL IZANGO DUTE, ETA KUADRILLAKO ZERBITZU TEKNIKOEN ONARTU ONDOREN ERANTZUNGO DIO ESKAERA HORRI KUADRILLAK.	51
47. ARTIKULUA. ONTZI HONDAKINAK, ONTZIAK EZ DIREN KARTOI-PAPEREZKO HONDAKINAK ETA BIOHONDAKINAK BILTZEARI BURUZKO BERARIAZKO ARAUAK.	51
III. TITULUA. ERANTZUKIZUNAK ETA ZEHAPEN ARAUBIDEA	52
I. KAPITULUA. ERANTZUKIZUNA, ZAINZA, IKUSKAPENA ETA KONTROLA	52
48. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNA	52
49. ARTIKULUA. ZAINZA ETA IKUSKAPENA.	53

**ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)****CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)**

50. ARTIKULUA. LAGUNTZEKO BETEBEHARRA.	53
II. KAPITULUA. ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK	54
51. ARTIKULUA. SUBJEKTU ERANTZULEAK.	54
52. ARTIKULUA. ARAU HAUSTEAK	54
53. ARTIKULUA. ARAU HAUSTE ARINAK.	54
54. ARTIKULUA. ARAU HAUSTE ASTUNAK.	55
55. ARTIKULUA. ARAU HAUSTE OSO ASTUNAK.	56
56. ARTIKULUA. ZEHAPENAK	57
57. ARTIKULUA. KALTEA KONPONTZEA ETA KALTE ORDAINA	58
58. ARTIKULUA. HERTSATZEKO ISUNAK.	59
59. ARTIKULUA. ZEHAPEN PROZEDURA. ORGANOK ESKUDUNA.	59
60. ARTIKULUA. EBAZTEKO EPEA	60
61. ARTIKULUA. ARAU HAUSTEEN PRESKRIPZIOA ETA ZEHAPENAK	61
<u>XEDAPEN INDARGABETZAILEA</u>	61
<u>AZKEN XEDAPENA</u>	62

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

ZIOEN AZALPENA

Hondakinen arloan indarrean dagoen araudiak, bai lurraldez gaindikoak bai lurraldekoak, aukera ematen du hiri hondakinen bilketari, kudeaketari eta tratamenduari dagozkion alderdi guztiak behar bezala arautzeko. Horrela, bada gaur egun arau multzo bat, hondakinen kudeaketaren arloan proposatutako helburuak lortzeko ekintzak nola garatu behar diren ezartzen duena.

Udal hondakinei buruzko esparru juridiko sektorialean honako hauek aplikatu behar dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/851 (EB) Zuzentaraua, hondakinei buruzko 2008/98/EE Zuzentaraua aldatzen duena; apirilaren 8ko 7/2022 Legea, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, eta 7/2022 Legea eta lege horren aurreko erregelamenduak erregelamendu bidez garatzeko zenbait araudi.

Udal hondakinei buruzko esparru juridiko sektorialeko berriarazko araudia izan gabe, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 86.2 artikulua berriaz adierazten du toki erakundeen alde gordetzen dela hondakinak bildu, tratatu eta aprobetxatzea. Erreserba hori bat dator, gainera, Legearen 26.1.a) artikulua berriaz jasotzen duen betebeharrarekin; izan ere, artikulua horren arabera, udalerrir guztiak eman behar diete beren biztanleei hondakinak biltzeko zerbitzua.

Hori alde batera utzita, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak Espainiako estatuan hondakinei oinarritzko izaerarekin aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzen du, eta, horrela, EBk 2018an onetsitako hondakinei buruzko zuzentaruaren – 2018/851 (EB) Zuzentaraua – lege maila behar duten arauak txertatzen ditu barne ordenamenduan, eta, ondorioz, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea indargabetzen du.

Testuinguru horretan, 7/2022 Legeak, besteak beste, toki erakundeek hondakinen arloan dituzten eskumenak arautzen ditu, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 eta 26. artikuluetan xedatutakoa zehaztuz; eta, bestalde, azken xedapenetako zortzigarrenean, toki erakundeek lege horretara egokitzen diren ordenantzak onesteko betebeharra jasotzen du, beren eskumeneko hondakinak finkatutako epeetan biltzeari eta kudeatzeari buruzko betebeharrak betetzen direla bermatzeko.

7/2022 Legeak udal eskumeneko hondakinen taldean sartzen ditu etxeko hondakinak, merkataritzakoak, bai eta konposizioan eta kantitatean aurreko zerbitzu eta industrietan sortzen diren hondakinekiko antzekoak direnak ere, baldin eta zerbitzuaren edo industriaren jardueraren ondorioz sortzen ez badira.. Horrela, eta 7/1985 Legean xedatutakoarekin bat etorritik, 7/2022 Legearen 12.5 artikuluan ezartzen da toki erakundeak direla nahitaezko zerbitzu publiko gisa etxeko hondakinen bilketa, garraioa eta tratamendua emateko eskumena duten administrazioak, dagozkien ordenantzek ezartzen duten moduan. Eta, era berean, toki erakundeek merkataritza hondakin ez arriskutsuak kudeatu ahal izango dituzte, 7/2022 Legearen 12.5 e) 2. eta 20.3 artikuluetan jasotakoarekin bat etorritik, establezimenduek beren borondatez udal kudeaketako sistemari heltzea erabakitzen dutenean, edo, toki erakundeak bere kudeaketa sistema ezarri duenean eta hondakinen kudeaketan efizientzia eta eraginkortasun handiagoko irizpideetan oinarrituta, modu arrazoituan, hondakinen ekoizle horiek udal kudeaketako sistemari nahitaez sartzea ezartzen duenean. Nolanahi ere, merkataritza hondakinen sortzaileak sistema publikoari heltzen ez badio, hondakinak behar bezala kudeatzen dituela egiaztatu beharko dio toki erakundeari, 7/2022 Legearen 20.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Azkenik, 7/2022 Legea erregelamendu bidez garatzeko arau gisa, ontzietan eta ontzi-hondakinei buruzko abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuak zehatz-mehatz arautzen du toki erakundeek ontzi hondakinei buruz dituzten eskumenen araubidea. Eta, era berean, 7/2022 Legea baino lehen onetsitako zenbait erregelamenduk hainbat alderdi deskribatzen dituzte toki erakundeen eskumen esparruari buruz, garrantzi bereziko hondakinei dagokienez. Haien artean daude, besteak beste, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, pila eta metagailuen hondakinak eta abandonatutako ibilgailu eta pneumatikoak:

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

27/2021 Errege Dekretua, urtarrilaren 19koa, honako hauek aldatzen dituena: 106/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, Pila eta metagailuei eta horien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa, eta 110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa

731/2020 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, erabiltzen ez diren pneumatikoen kudeaketari buruzko abenduaren 30eko 1619/2005 Errege Dekretua aldatzen duena. garbia eginez (erabiltzen ez diren pneumatikoak bilketaguneetan jasotzeari dagokienez).

265/2021 Errege Dekretua, apirilaren 13koa, bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuei buruzkoa eta abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak onetsitako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra aldatzen duena (abandonatutako automobilak etxeko hondakintzat berariaz hartzeari dagokionez).

Beraz, azaletik deskribatutako arau aldaketen aurrean, nahitaezkoa da udal eskumeneko hondakinen bilketa arautzen duen ordenantza bat onestea, erregelamendu horietara egokitzeko.

Ondorioz, Arabako Mendialdeko Kuadrillak, Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren arabera (1. artikuluan ezartzen duenez, udalerriek osatutako foru erakunde gisa eratzten dira, gaietan parte hartzeko eta bere lurralde eremuari eragiten dioten interes orokorreko gaiak sustatu eta kudeatzeko, eta 28. artikuluko e) letran xedatzen du Kuadrillari dagokiola bere interes orokorreko zerbitzuak sustatzea eta kudeatzea, eta f) letran, berriz, Udalek eskuordetuta edo eskualdatuta eskumenak bereganatzea), udal eskumeneko hondakinak biltzeko zerbitzua emateko beharrezko izapideak egin zituen.

Horretarako, Arabako Mendialdeko Kuadrillaren eta kasuan kasuko udalen arteko hitzarmenaren zirriborroa egin zuen, udal eskumeneko hondakinak biltzeko eta baimendutako tratamendu instalazioetara garraiatzeko eskumenak eskuordetzeko, eta, Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezu, Lagran, Urizaharra eta Haranako udalek osoko bilkuran eskumenak eskuordetzeko erabakiak hartu ondoren, Kuadrillako Batzarrak, 2024ko irailaren 18an egindako osoko bilkuran, udalek egindako eskumen eskuordetza onartzea onetsi zuen.

**ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)**



**CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)**

2024ko urriaren 21eko 120 zenbakiko ALHAOn argitaratu ondoren, Kuadrillaren eta udalen arteko Hitzarmena formalizatu zen, eskumenak Kuadrillari eskuordetzeko, udalaren eskumenekoak diren hondakinak biltzeari eta baimendutako tratamendu instalazioetara garraiatzeari eta ondoren kudeatzeari dagokienez.

Hitzarmenak ahalmena ematen dio Kuadrillari udal eskumeneko hondakinen bilketaren kudeaketa bere gain hartzeko eta dagokion zerbitzuaren ordenantza arautzailea egiteko.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

1. Ordenantza honen xedea da Arabako Mendialdeko Kuadrillan – aurrerantzean, Kuadrilla, Arraia-Maeztu, Kanpezu, Bernedo, Lagran, Urizaharra eta Harana udalerriek osatua – udal eskumeneko hondakinak biltegitzera eta biltzera bideratutako jokabide eta jarduera guztiak arautzea, hondakinen hierarkia printzipioa errespetatuz, hondakinen sorrera saihesteko, eta hori ezinezkoa denean, hondakinak kudeatzeko erraztasunak emateko, ordena honetan, berrerabiltzeko prestaketaren, birziklatzearen eta balorizazio material edo energetikorako beste modu batzuen bidez, halako moldez non hondakindegietan gutxiago uzten den eta, horrela, ingurumen emaitza orokorrik onena lortzeko, giza osasunaren eta ingurumenaren gaineko eragin kaltegarriak arinduz.
2. Udal eskumenak erabiliz, ordenantza honek hondakinen eta toki araubidearen arloko Estatuko eta EAEko legeria garatzen du, eta uneoro aipatu legeriaren arabera interpretatu eta aplikatu behar da.
3. Ordenantza hau orokorrean aplikatuko zaie udal eskumeneko hondakinak kudeatzeko zerbitzuei, beren eskumen eremuan.
4. Ordenantza honetako arauak analogiaz aplikatuko zaizkie berariaz araututa ez dauden eta, beren izaera dela eta, aplikazio eremuaren barruan dauden kasuei.
5. Kuadrillak komenigarritzat jotzen duen interpretazioa ezarriko du ordenantza honen aplikazioan sor daitezkeen zalantzetan.
6. Kuadrilla osatzen duten udalerrietan Kuadrillak horretarako prestatutako bitarteko, instalazio edo zerbitzuetan hondakinak uzten dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiek Ordenantza honetan eta hura interpretatzeko edo garatzeko ematen diren arauetan xedatutakoa bete beharko dute.
7. Zerbitzu horiek emateko prezioei dagokienez, hondakinak kudeatzeko zerbitzuen finantzaketa arautzen duen ordenantza aplikatuko da, une bakoitzean indarrean dagoena eta Kuadrillak onetsita.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

2. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Ordenantza honetan araututako jarduera eta jokabideei aplikatu beharreko araubide juridikoa bertan, gai horretan aplikatzekoa den Estatuko eta EAeko legerian eta zuzenean aplikatzekoa den Europako araudian aurreikusitakoa izango da.
2. Ordenantza honen arauketak honako xedapen hauen printzipioak eta horiek garatzeko edo aplikatzeko arauak betetzen ditu:
 - Batzordearen 2014/955/EB Erabakia, 2014ko abenduaren 18koa, hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EB Erabakia aldatzen duena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauarekin bat eginez.
 - 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzekoa.
 - 1055/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, Ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa.
 - 265/2021 Errege Dekretua, apirilaren 13koa, bizitza baliagarriaren bukaeran dauden ibilgailuei buruzkoa.
 - 553/2020 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, Hondakinak estatu barruan lekualdatzeko arauak ematen dituena.
 - 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, hondakinak zabortegean utzita deuseztatzea arautzen duena.
 - 293/2018 Errege Dekretua, maiatzaren 18koa, plastikozko poltsen kontsumoa murrizteari buruzkoa eta Ekoizleen Erregistroa sortzen duena.
 - 110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa (urtarrilaren 19ko 27/2021 Errege Dekretuaren bidez egindako aldaketen arabera).
 - 106/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, pila eta metagailuei eta horien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa (uztailaren 24ko 710/2015 Errege Dekretuaren, uztailaren 23ko 943/2010 Errege Dekretuaren eta urtarrilaren 19ko 27/2021 Errege Dekretuaren bidez egindako aldaketen arabera).

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

- 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen produkzioa eta kudeaketa arautzen dituen.
- 1619/2005 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, erabiltzen ez diren pneumatikoen kudeaketari buruzkoa (abuztuaren 4ko 731/2020 Errege Dekretuaren bidez egindako aldaketan arabera).

3.- Era berean, toki araubidearen, administrazio prozeduraren eta sektore publikoaren araubide juridikoaren arloan indarrean dagoen araudia betetzen du,

- 63/1989 Foru Araua, azaroaren 20koa, Kuadrillei buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2ekoa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 1/2023 Legea, martxoaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa.

3. artikulua. Definizioak.

1. Aurreko artikuluan adierazitako xedapen arautzaileetan ezarritakoaren arabera, ordenantza honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:
 - a. Landare olio erabiliak: etxeko edo tabernetako, jatetxeetako, hoteletako eta bestelako sukaldaritza zerbitzuetako frijitzeko jardueretako landare olioien hondakinak, bai eta kontserba olioak ere. Hemen ez dira sartzen beste elikadura koipe batzuk.
 - b. Agentea: hirugarrenen enkarguz hondakinen balorizazioa edo deuseztatpena antolatzen duen pertsona fisiko edo juridiko oro, hondakinen jabetza fisikoa hartzen ez dutenak barne.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

- c. Etxeko animaliak: gizakiek abeltzaintzaz bestelako helburuekin elikatu eta mantendutako edozein animalia, kontsumituko ez dena.
- d. Biohondakina: etxeetako, lorategietako eta parkeetako landare hondakin biodegradagarriak dira, baita ere elikagaien eta sukaldeetako hondakinak, besteak beste, etxeetan, bulegoetan, jatetxeetan, handizkakoetan, jantokietan, sukaldaritza kolektiboko zerbitzuetan eta txikizkako kontsumo establezimenduetan sortzen direnak eta elikagaiak eraldatzeko instalazioetako hondakinekin konparatu daitezkeenak.
- e. Konposta: material organiko higienizatua eta egonkortua, bereizita jasotako hondakin biodegradagarrien tratamendu biologiko aerobio eta termofilo kontrolatutik lortutakoa. Material bioegonkortua ez da konposta.
- f. Ekonomia zirkularra: ekonomiaren produktuen, materialen eta gainerako baliabideen balioak ahalik eta denbora gehien irauten duen sistema ekonomikoa, ekoizpenean eta kontsumoan efizientziaz erabiltzea bultzatzen duena, horrela erabileraren ingurumen inpaktua murrizten duena, eta hondakinak eta substantzia arriskutsuen askapena ahalik eta gehien murrizten dituen bizi zikloaren fase guztietan, hala badagokio hondakinen hierarkia aplikatuz.
- g. Deuseztapena: balorizaziokoa ez den edozein eragiketa, horren bigarren ondorioa substantziak edo energia aprobetxatzea denean ere. 7/2022 Legearen I. eranskinean deuseztatze lanen zerrenda bat jasotzen da (ez da zorrotza).
- h. Ontzia: edozein motatako materialekin fabrikatutako produktuak dira eta salgaiak (besteak beste, lehengaiak eta bukatutako produktuak) gorde, babestu, manipulatu, banatu eta aurkezteko erabiltzen dira fabrikazio, banaketa eta kontsumo-katearen edozein fasetan. Ontziak dira baita ere helburu berbererako erabiltzen diren behin erabili eta botatzeko artikulua.
- i. Merkataritza establezimendua: saltegiak eta dendak, finkoak, non aldizka egiten diren handizkako edo txikizkako produktuak saltzeko merkataritza jarduerak, ostalaritza eta jatetxe jarduerak edo jendeari izaera horretako zerbitzuak emateko jarduerak, bai eta legezko edo arauzko xedapenaren arabera kalifikazio hori jasotzen duen beste edozein esparru mugatu ere.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

- j. Merkataritza establezimendu kolektiboa: esparru, parke edo eraikin beraren barruan instalatutako saltegiek edo dendek osatzen dute, eta merkaturatze lizentzia bakarra du, nahiz eta saltegiak edo denda bakoitzak bere enpresa jarduera egiten duen.
- k. Ekitaldi publikoak: jarduera hauek hartzen dira halakotzat:
 - i. Ikuskizun publikoak: enpresa batek, artistek edo enpresaren kontura esku hartzen duten exekutatzaileek eskaintzen dioten antzeppen, emanaldi, erakusketa edo proiektzio bat ikustera joaten diren ikusleak biltzen dituzten ekitaldiak.
 - ii. Jolas eta kirol jarduerak: jardueran parte hartzeko edo enpresak eskaintzen dizkien zerbitzuak jasotzeko, aisia, entretenimendua, dibertsioa, kirola eta jarduera fisikoa helburu dituen publikoa biltzen dutenak.
 - iii. Jarduera soziokulturalak: pertsona talde bat bildu edo elkartu dezaketenak jarduera sozial eta kulturaletan parte hartzeko helburuarekin, izaera politikoa edo aldarrikatzailea dutenak izan ezik, hala nola manifestazioak, mitin politikoak edo antzekoak.
- l. Hondakinen kudeaketa: hondakinak batzea, garraiatzea eta tratatzea, eragiketa horiek zaintzea eta zaborteziak itxi ondorengo mantentzea, baita negoziatzaile ego agente egindako jarduketak ere.
- m. Hondakinen kudeatzailea: pertsona edo entitatea, publikoa nahiz pribatua, baimen edo komunikazio bidez erregistratua, hondakinen kudeaketa osatzen duten jardueretariko edozein egiten duena, haien ekoizlea izan zein ez.
- n. Negoziatzailea: hondakinen erosketan eta ondorengo salmentan bere kontura diharduen pertsona fisiko edo juridiko oro, hondakinen jabetza fisikorik hartzen ez dutenak barne.
- o. Hondakinen edukitzailea: hondakinen ekoizlea edo hondakinak dituen beste pertsona fisiko edo juridiko bat. Hondakinen edukitzailetzat joko da abandonatutako hondakinak edo zaborra sakabanatua dauden lurzatiaren katastroko titularra, eta hondakin horien administrazio arduraduna izango da, abandonuaren egile materiala edo aurreko edukitzailea identifikatzea posible den kasuetan izan ezik.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

- p. Berrerabiltzeko prestaketa: balorizazio lan bat da. Bertan, egiaztaketak, garbiketak eta konponketak egiten dira eta hondakin bihurtu diren produktuak edo produktuen osagaiak prestatu egiten dira, aurretiko bestelako eraldaketarik gabe berrerabili ahal izateko eta jada hondakinak ez izateko, baldin eta aplikatzekoak diren produktuen arau teknikoak eta kontsumokoak betetzen badituzte.
- q. Prebentzioa: substantzia, material edo produktu bat sortzeko eta diseinatzeko, ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko fasean hartutako neurrien multzoa, honako hauek murrizteko:
- i. Hondakin kantitatea, baita produktuak berrerabiliz edo produktuen balio bizitza luzatuz ere.
 - ii. Sortutako hondakinek ingurumenean eta giza osasunean dituzten eragin kaltegarriak, materialen edo energiaren erabileran aurreztea barne.
 - iii. Materialetan eta produktuetan arriskutsuak diren substantzien edukia.
- r. Hondakinen ekoizlea: hondakinak sortzen dituen edozein pertsona fisiko edo juridiko (hondakinen hasierako ekoizlea) edo hondakin horien izaeran edo konposizioan aldaketa eragiten duten aldez aurreko tratamenduko, nahasketako edo bestelako eragiketak egiten dituen edozein pertsona.
- s. Bilketagunea: toki erakunde baten bilketa eremuan biltegitratze instalazioa, etxeko hondakinak bereizita biltzen dituen.
- t. Birziklatzea: balorizazio lan oro, zeinaren bidez hondakinen materialak berriz produktu, material edo substantzia bihurtzen diren, izan jatorrizko xedearekin, izan beste edozein xederekin. Material organikoaren eraldaketa ere barnean du, baina ez energi balioespina, ez erregai gisa edo betelanetarako erabiliko diren material bihurtzea.
- u. Bilketa: hondakinak modu profesionalean biltzea, sailkatzea eta biltegitratzea, ondoren tratamendu instalazio batera eramateko.
- v. Bereizitako bilketa: hondakin fluxu bat bereizita biltzea, hondakin mota eta izaeraren arabera, hondakin horren berariazko tratamendua errazteko asmoz.
- w. Hondakina: edukizailak botatzen duen, botatzeko asmoa edo betebeharra duen edozein substantzia edo objektu.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

- x. Merkataritza hondakinak: merkataritzaren beraren jarduerak, handizkako zein txikizkako merkataritza jarduerak, jatetxe eta tabernetako zerbitzuak, bulego eta azoketako jarduerak, bai eta zerbitzuen sektoreko gainerako jarduerak sortutakoa hondakinak ere.
- y. Toki eskumeneko hondakinak: toki erakundeek kudeatutako hondakinak, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 12.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.
- z. Eraikuntza eta eraispen hondakinak: eraikuntza eta eraispen jarduerak sortutako hondakinak.
- aa. Etxeko hondakinak: etxeetan egiten diren jardueretan sortutako hondakin arriskutsuak edo ez arriskutsuak. Etxeko hondakinak izango dira baita ere konposizioan eta kantitatean aurreko zerbitzu eta industrietan sortzen diren hondakinakiko antzekoak direnak, baldin eta zerbitzuaren edo industriaren jardueraren ondorioz sortzen ez badira.
Kategoria honetan sartzen dira etxeetan sortzen diren hondakinak ere, besteak beste, erabilitako sukaldeko olioak, gailu elektrikoak eta elektronikoak, arropak, pilak, metagailuak, tresnak eta koltxoak eta eraikuntzako obra txikietan eta etxeetako konponketa-lan txikietan sortzen diren hondakinak eta zaborrak.
Etxeko hondakin gisa hartuko dira bide publiko, gune berde, aisialdi gune eta hondartzetatik eratorritako hondakinak, hildako etxeko animaliak eta abandonatutako ibilgailuak.
- bb. Industria hondakinak: jarduera nagusiaren ondorioz industria jarduerak sortutako ekoizpen, fabrikazio, eraldaketa, erabilera, kontsumo, garbiketa edo mantentze prozesuen ondoriozko hondakinak.
- cc. Udal hondakinak: udal eskumenekoak izango dira etxeko hondakinak eta merkataritza hondakin ez arriskutsuak:
 - i. Etxean sortutako hondakin nahastuak eta bereizita bildutako hondakinak, papera eta kartoia, beira, metalak, plastikoak, biohondakinak, zura, oihalak, ontziak, gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak, pilen eta metagailuen hondakinak, etxeko hondakin arriskutsuak eta hondakin handiak, koltxoak eta altzariak barne,

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

- ii. beste iturri batzuetatik datozen hondakin nahastuak eta bereizita bildutako hondakinak, hondakin horien ezaugarriak eta osaera etxean sortutako hondakinen antzekoak direnean.

Udal hondakinetan ez dira sartzen jatorri hauek dauzkaten hondakinak: ekoizpena, nekazaritza, basogintza, arrantza, putzu septikoak eta estolderia sarea eta hondakin urak tratatzeko instalazioak, araztegi-tako lohiak, ibilgailuak euren balio bizitzaren amaieran, ez eraikuntza eta eraipen hondakinak ere.

Definizio hau sartzen da berrerabiltzeko prestaketaren eta birziklatzearen arloko helburuen aplikazio eremua eta lege honetan ezarritako kalkulu arauak zehazteko, eta ulertzen da eragotzi gabe agente publiko eta pribatuaren artean hondakinak kudeatzeko erantzukizunak banatzea, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 12.5 artikuluan ezarritako eskumen banaketaren arabera.

- dd. Hondakin arriskutsua: Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen I. eranskinean zerrendatutako arriskugarritasun ezaugarrietako bat edo batzuk dituen hondakina, eta Gobernuak hondakin arriskutsu gisa kalifikatzen duena Europar Batasunaren araudian edo Espainiako Estatuak parte hartzen duen nazioarteko hitzarmenetan ezarritakoaren arabera. Definizio honetan sartzen dira, halaber, substantzia edo prestakin arriskutsuen hondarrak dituzten edo horiez kutsatuta dauden ontziak, salbu eta frogatzen bada ez dutela I. eranskinean zerrendatutako arrisku ezaugarrietako bat ere.

- ee. Udal eskumeneko hondakin sanitarioak: jarduera medikoak edo sanitarioak gauzatzean sortutako hondakinak, biltzeko edo kudeatzeko berariazko baldintzarik eskatzen ez dutenak, inolako kutsadura zehatzik eta infekzio arriskurik gabe, ez sortzen diren zentroen barruan ez kanpoan, bai eta jarduera mediko edo sanitarioetan sortutako hondakin guztiak ere, baldin eta etxeko jardueren ondorioz etxeetan sortutako hondakinen antzeko ezaugarriak badituzte. Papera, kartoia, metalak, beira, janari hondarrak, lorezaintzako hondakinak, altzariak eta tresnak dira, bai eta osasun

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

jarduerarik berez egiten ez den osasun zentro edo kontsulta bateko geletan edo eremuetan sortzen diren bestelako hondakinak ere, hala nola bulegoetan, jantokietan, kafetegian, biltegietan, itxarongeletan eta antzekoetan sortzen direnak.

- ff. Tamaina handiko hondakinak: ohiko bilketa sistemaren bidez biltzea zailtzen duten bolumen, pisu edo tamaina ezaugarri bereziak dituzten udal eskumeneko hondakinak, hala nola tresnak, altzariak, metalezko xaflak, zurak, etab.
- gg. Berrerabiltzea: hondakinak ez diren produktuak edo produktuen osagaiak horiek sortu ziren helbururako berriro erabiltzen dituen edozein eragiketa.
- hh. Edukiontzia eta postontzia gailu elektronikoen bidez irekitzeko sistema: edukiontzia eta postontzia itxi eta irekitzea ahalbidetzen duten elementu mekaniko, elektronikoen eta komunikazioko multzoa, gailuak (txartelak edo antzekoak) erabiliz. Eragiketa horretatik datuak lortzen dira eta datu horiek kudeatu egiten dira.
- ii. Tratamendua: hondakinak balioztatzeko edo deuseztatzeko lanak, balorizazioaren edo deuseztapenaren aurreko prestaketa-lanak barne.
- jj. Balorizazioa: edozein eragiketa, horren emaitza nagusia bada hondakinak helburu erabilgarri bat edukitzea beste material batzuk ordeztuz, bestela funtzio partikular bat betetzeko erabiliko litzatekeena, edo hondakina prestatzea funtzio hori betetzeko instalazioan edo ekonomian, oro har. II. eranskinean, balioesteko eragiketen zerrenda ez zehatza bildu da.
- i. Materialen balorizazioa: balorizazio energetikoa eta erregai gisa edo energia sortzeko beste bitarteko gisa erabiliko den material bihurtzeko eraldaketa ez diren balorizazio eragiketa guztiak. Beste lan batzuen artean, horien barne dago berrerabiltzeko prestatzea, birziklapena eta betelanak.
- kk. Ohiko bilketa: errefusoen hondakinak, ontzi arinak, papera/kartoia eta biohondakinak biltzeko eragiketa, hasierako sailkapena eta biltegitratzea barne, tratamendu instalazio batera eramateko, hala eskatzen bada.
- ll. Bilketa berezia: Ekitaldietan eta jaietan sortutako hondakinak erretiratzea, salbuespen gisa eta ohiko bilketa zerbitzua indartzeko.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

mm. Ezohiko bilketa: udal eskumeneko hondakinak biltzea, lehen aipatutako ohiko bilketaren edo bilketa bereziaren modalitatearen baten bidez jasotzen ez direnak.

4. artikulua. Erakunde eskuduna eta eskumen esparrua.

1. Kuadrillaren eginkizun nagusia bere lurralde eremuari eragiten dioten interes orokorreko zerbitzuak sustatzea eta kudeatzea da. Beraz, Kuadrilla osatzen duten udalen eskumenak eskuordetuta, hondakinen bilketaren arloan, sortutako eta bertan utzitako etxeko hondakinak bildu, garraiatu eta kudeatzeko zerbitzua arautzeko ahalmena du, ordenantza honetan ezartzen den moduan.
Kuadrillak, nahitaezko zerbitzu gisa, bere lurralde eremu osoan, etxeko hondakinak bildu eta garraiatuko ditu, ordenantza honetan ezarritako moduan eta hondakinei eta toki araubideari buruzko Estatuko eta EAeko araudian ezarritakoarekin bat etorritik.
2. Era berean, Kuadrillak hauek egin ahalko ditu:
 - a) Bere eskumeneko hondakinak kudeatzeko programak egin.
 - b) Merkataritzako hondakin ez arriskutsuak bildu eta garraiatu. Nolanahi ere, hondakin horien ekoizleek beren kabuz kudeatu ahal izango dituzte, 7/2022 Legearen 20.3 artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitako baldintzetan, Ordenantza honetan ezarritako baldintzetan.
Halaber, bere eskumeneko hondakinak kudeatu ahal izango ditu horretarako baliabide materialak dituenean.
 - c) Etxeko hondakin arriskutsuen edo horien kudeaketa zailtzen duten hondakinen ekoizlea edo beste edukitzaile bat behartu ezaugarri horiek ezabatzeko edo murrizteko neurriak har ditzaten, edo hondakinak modu eta leku egokian utz ditzaten, ordenantza honetan ezarritako baldintzetan.
3. Kuadrillari dagokio zaintzeko eta ikuskatzeko ahala eta zehatzeko ahala, aurreko apartatuen arabera dituen eskumenen esparruan, ordenantza honen III. tituluaren ezarritakoaren arabera.
4. Ordenantza honetan ezarritako helburuak edo udal eskumeneko hondakinei dagokienez indarrean dagoen araudian aurreikusitakoak betetzen ez badira,

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

Kuadrillak Ordenantza honetan ezarritako neurriak aldatu ahal izango ditu horiek betetzen direla bermatzeko.

5. artikulua. Zerbitzuak ematea.

1. Kuadrillak Ordenantza honetan eta hura garatzeko tresnetan jasotako hondakinak biltzeko zerbitzuak emango ditu, toki araubidearen araudian aurreikusitako edozein kudeaketa moduren pean.
2. Etxeko hondakin arriskutsuen edo etxeko hondakinen kasuan, horien ezaugarri bereziek kudeaketa zailtzen badute edo garraioan, bilketan, balorizazioan edo ezabaketan eragozpenak sor baditzakete, Kuadrillak betebehar hauetako bat edo batzuk ezarri ahal izango dizkie haien jabeei:
 - a. Ezaugarri horiek ezabatzeko edo murrizteko neurriak hartzea.
 - b. Berariaz erabakitako moduan eta lekuan uztea.
 - c. Bilketa erabiltzaileak aldeztatik eskatuta egin behar izatea, Ordenantza honetan araututako bilketa bereziko araubidean.
 - d. Hondakinak nahitaez beren kabuz eta udal bilketa sistematik kanpo kudeatzea, baimendutako kudeatzaile bati edo erregistratutako biltzaile bati emanez, baimendutako kudeatzaile bati emango zaizkiola bermatzeko, Kuadrillak aurreikusitako bitartekoen bidez jaso ezin badira. Etxeetan sortutako etxeko hondakinei dagokienez, ezin izango da neurri hori hartu, berariazko araudi batek hala ezarri ezean. Nolanahi ere, hondakinak dauzkatenek, beren borondatez, hondakinen kudeatzaile bati zuzenean ematea erabaki ahal izango dute, ordenantza honetan jasotako kasuetan.
3. Bilketa zerbitzua normaltasunez ematea ezinezkoa egiten duten larrialdiko edo ezinbesteko egoeretan, eta aurrez Kuadrillak egiaztatu, adierazi eta jakinarazi ostean, zerbitzua aldi baterako aldatu edo eten ahalko da; kasu horietan, erabiltzaileek hondakinak ezingo dituzte bota zerbitzua normalizatzen den artean, edo kasu bakoitzerako beharrezko jarraibideak eman artean. Salbuespen horiek aplikatzeak ez du inola ere eskubiderik emango erabiltzaileek zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko kalte ordaina edo murrizketa jasotzeko, Ordenantza honen arabera.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

6. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak eta udal eskumeneko hondakinen titulartasuna

1. Eskualdeko bilketa zerbitzuaren erabiltzaile diren hondakinen ekoizleek honako betebeharrak izango dituzte, oro har:
 - a. Hondakinen bolumena murriztea eta uztea, halako moldez non poltsen eta edukiontzien edukiera aprobetxatzen den. Kartoizko ontzien kasuan, tolestuta utzi beharko dira, Ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera, eta, era berean, hondakinak tolestu edo zatitu, Ordenantza honetan ezarritako kasuen arabera.
 - b. Hondakinak jatorrian behar bezala bereiztea, Ordenantza honetan ezarritako zatikien arabera, eta edukiontzietan –erabili ondoren estalkiak itxiz– edo Ordenantza honen arabera horretarako ezarritako bilketa guneetan uztea. Aplikatzekoa denean, edukiontziak bide publikora ateratzea, zerbitzu publikoak jaso ditzan Kuadrillak ezarritako ordu eta lekuetan.
 - c. Kalteak eragin ditzaketen hondakinak (beira lau, toska, latorria, etab.) modu seguruan uztea.
 - d. Hondakinen edukiontziak behar bezala erabiltzea, behartu edo hondatu gabe.
 - e. Erraustsak aldez aurretik itzalita eta hotz uztea.
 - f. Edukiontziak kargatu, deskargatu, mantendu, lekualdatu eta garbitzeko lanak ez eragozteak.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

- g. Hondakinak ez uztea zerbitzua normalizatu arte, bilketa zerbitzua ematea eragozten duten ezinbesteko egoeretan; egoera hori behar bezala jakinaraziko da.
- h. Hondakinak uzteko eta emateko ordutegiak betetzea, hala ezartzen den kasuetan.
- i. Sortutako hondakinak edo sastarrak kalean edo jendearen gozamenerako guneeetan (parkeetan, etab.) edo horretarako prestatutako edukiontzietan uztea. Halakorik ez badago, hurbilen dauden edukiontzietan edo egokitutako lekuetan utzi beharko dira, zatikiaren eta izaeraren arabera. Edukiontzi bat beteta badago, ez dute edukiontzi jakin horretan edo bide publikoan hondakinik utzi beharko; hala bada, hondakinak dagokion zatikirako hurbilen dauden edukiontzietara eraman beharko dira, edo hustu arte itxaron. Egoera horretan, erabiltzaileei gomendatzen zaie edukiontzia beteta dagoela jakinaraz dezatela, Kuadrillako Ingurumen Zerbitzuaren telefono zenbakira deituta.
- j. Arriskutsuak izan daitezkeen hondakinak identifikatu, kudeatzeko eman aurretik, eta, arriskutsuak badira, Kuadrillari haien jatorriari, arriskugarritasun ezaugarriei, helmugari eta abarri buruzko informazioa ematea. Halaber, Kuadrillari informazioa ematea ematen dizkieten hondakinei buruz ezaugarri bereziak dituztenean, baldin eta garraioan, bilketan, balorizazioan edo deuseztatenean eragozpenak sor baditzakete.
2. Kuadrillak uko egin ahal izango dio aurreko zehaztapenekin bat etorritz behar bezala utzita ez dauden hondakinak kentzea.

**ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)****CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)**

3. Sortutako hondakinen izaerak edo kantitateak hala justifikatzen badu, Kuadrillak baldintza bereziak eskatu ahal izango ditu, hala nola edukiontzietan poltsa jartzea edo hondakinak ezarritako ordutegi batean uztera behartzea.
4. Eskualdeko bilketa zerbitzua erabiltzen ez duten merkataritza hondakin ez arriskutsuen ekoizleek jatorrian bereizi beharko dituzte hondakinak, zatika, eta aplikatu beharreko araudiaren arabera kudeatu beharko dituzte, eta Kuadrillak agiri bidez egiaztatu beharko du hondakin horien kudeaketa egokia dela, 7/2022 Legearen 20.3 artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera. Horretarako, honako hauek egin beharko dituzte:
 - a. Hondakin horiek jatorrian bereizi eta higie eta segurtasun baldintza egokietan izan, beren esku dauden bitartean, eta hondakin kudeatzaileei zatikien arabera bereizketa baldintza egokietan eman, aplikatzeko den araudiak xedatutakoaren arabera.
 - b. Hondakin horiek behar bezala bildu eta tratatu direla egiaztatzen duen agiria eduki, eta Kuadrillara, Udalera eta EAEn hondakinen eskumena duen erakundera bidali, hala eskatzen zaionean.
 - c. Dokumentazioan adierazten bada apartatu honetan araututako hondakinetako baten kudeaketa okerra edo defizitarioa egin dela, 5 egun balioduneko epean konpondu beharko da; bestela, ekoizlea eskualdeko bilketa zerbitzuari atxiki beharko zaio.
5. Herritarrek Kuadrillari edo hondakinen arloko agintaritza eskuduneko agenteei jakinaraziko diete abandonatutako hondakinak edo zaborra daudela bidean edo espazio publikoetan, hala nola abandonatutako ibilgailuak, altzariak, hildako animaliak, eraikuntza eta eraipen hondakinak, etab.
6. Etxeko animalia baten jabeak, txakur gidarien titularrak diren itsuek izan ezik, txakurrak bide publikoan eta espazio publikoetan hustutako gorozkiak jaso beharko ditu, eta horretarako identifikatutako edukiontzietan utzi beharko ditu, edo, bestela, espazio publikoetan jarritako paperontzietan.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

7. artikulua. Debekuak.

Hondakinak Kuadrillaren jabetzakoak izango dira behar bezala utzi ondoren.

Hala, debekatuta dago:

- a. Bide publikoan edo eskualdeko edozein lekutan, hondakin mota horretarako prestatu gabeko edukiontzietan edo Kuadrillak zehaztutako lekuetatik kanpo hondakinak uztea edo abandonatzea.
- b. Hondakinak edukiontzietan uztea ordenantza honetan ezarritakoa urratuz.
- c. Espazio publikoetan horretarako jarritako baliabideez bestelako lekuetan bolumen txikiko hondakinak uztea, hala nola paperak, txikleak, zigarrokinak, gozokiak, azalak eta antzeko hondakinak, bai eta zakarrontzietan uztea ere, poltsetan bilduta, hondakinak biltzeko berariazko zerbitzua ezarrita duten hondakinak.
- d. Edukiontzia edo haien edukia manipulatzeko, eta haien kokalekuetatik kanpo mugitzea, Kuadrillari alde aurreko abisurik eman eta berak baimenik gabe. Edukiontzien kokapena Kuadrillako Batzarrak zehaztuko du, dagokion protokoloa onetsiz.
- e. Edukiontzia Ordenantza honetan aurreikusitakoez bestelako helburuetarako erabiltzea.
- f. Bide publikoan dauden edukiontzietan edo bilketa guneetan utzitako edozein hondar material hautatzea eta eramatea, aprobetxatzeko.
- g. Edukiontzietan uzteko hondakinen dentsitatea handitzeko instalazioak egitea, Koadrilaren berariazko baimenik gabe.
- h. Edukiontzietan pintadak edo grafitiak egitea, edozein motatako kartelak edo itsasgarriak itsastea edo publizitate helburuekin erabiltzea.
- i. Hondakinak estolderia saretik ateratzea (zigarrokinak, pixoihalak, janari hondarrak, etab.), baita alde aurretik birrinduta ere.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

8. artikulua. Erantzukizuna.

Hondakinak dauzkatenek ez dute erantzukizunik izango hondakin horiek eragin ditzaketen kalteengatik, baldin eta ematean Ordenantza hau eta aplikatzeokoak diren gainerako arauak bete badira.

9. artikulua. Beste kudeatzaile batzuk.

Ezin izango da ezein pertsona fisiko edo juridiko aritu Kuadrillaren eskumeneko etxeko eta/edo merkataritzako hondakinak biltzen eta aprobetxatzen, Kuadrillaren berariazko baimenik gabe.

10. artikulua. Kale garbiketa.

Kuadrilla osatzen duten udalen eta administrazio batzarren kale garbiketako lanetan sortutako hondakinak: eskuzko ekorketa edo ekorketa mekanikoko hondakinak, hostoak eta beste hondakin batzuk, langileek hondakinak sailkatu ondoren, dagozkien edukiontzietan utziko dituzte, bide garbiketaz arduratuko diren zatiki motaren arabera.

11. artikulua. Hondakinak kudeatzeko eskualdeko zerbitzuak finantzatzea.

Ordenantza honetan aurreikusitako hondakinak kudeatzeko eskualde zerbitzuen finantzaketa dagokion Ordenantza Fiskalean ezarriko da, hau da, bilketa zerbitzuak finantzarioki jasagarriak izango dira, eta kostuak jasanaraztean "kutsatzen duenak ordaintzen du" printzipioa aplikatuko da.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

II. TITULUA. BILKETA ZERBITZUA

1. KAPITULUA. BILKETA ZERBITZUARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

Kapitulu honek arautuko du zein baldintzatan emango dituen Kuadrillak hondakinak biltzeko zerbitzuak eta zein baldintzatan erabiliko dituen erabiltzaileak.

12. artikulua. Erabiltzaileak.

Zerbitzu horiek emateko, erabiltzaile kategoría izango dute helbidea Kuadrilla osatzen duten udalerrietan daukaten edo Ordenantza honen xede diren zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiak, baldin eta Kuadrilla bada hondakinak biltzeko, tratatzeko eta aprobetxatzeko eskumenaren titularra.

13. artikulua. Zer bilduko den.

1. Hondakin hauek bilduko dira:

- a. Herritarrek beren etxebizitzetan sortzen dituzten elikaduraren eta etxeko kontsumoaren hondakinak.
- b. Herritarrek espaloiak ekortzean sortutako hondakinak.
- c. Merkataritza lokaletan sortutako bilgarriak, ontziak, bilgarriak eta bestelako hondakinak.
- d. Zerbitzuetako, merkataritzako eta jarduera ekonomikoetako jarduerak sortutako hondakin materialak, etxeko hondakinen antzeko ezaugarriak dituztenak eta, beraz, udalaren eskumenekoak direnak.
- e. Tabernetan, jatetxeetan eta prestatutako jakiak ematen dituzten edo mota orotako kontsumizioak egiten diren gainerako establezimenduetan

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

kontsumoan sortutako hondakinak. Era berean, supermerkatuetan, autozerbitzuetan eta antzeko establezimenduetan sortutakoak.

- f. Egoitzetan, hoteletan, ikastetxeetan eta bestelako establezimendu publikoetan edo jendearentzat irekitakoetan sortutako kontsumo hondakinak orokorrean.
 - g. Udal merkatuen jarduerak sortutako hondakinak.
 - h. Etxeko eraikuntza eta konponketarako obra txikiek sortutako hondakinak.
 - i. Etxebizitzetan eta dendetan sortutako erraustak.
 - j. Etxeko tamaina handiko hondakinak, bai eta arropa, oinetakoak eta antzeko produktuak ere.
 - k. Hildako etxeko animaliak.
 - l. Herritarrek beren etxebizitzetan sortutako etxeko hondakin arriskutsuak.
 - m. Ordenantza honetako 2. artikuluan aipatzen diren udal eskumeneko hondakin sanitarioak.
 - n. Beren izaera edo osaeragatik etxeko hondakinekin pareka daitekeen beste edozein.
- 2 Kuadrillak inausketa eta lorezaintza hondakinen bilketa kudeatu ahal izango du, beharrezko baliabideak dituenean.
 - 3 Koadrilak papera eta kartoia biltzeko lanak kudeatu ahal izango ditu, beharrezko baliabideak dituenean.

14. artikulua. Baztertutakoak.

Bilketa zerbitzuan inola ere sartuko ez diren hondakinak:

- a. Hondakin arriskutsuak, etxeetakoak izan ezik
- b. Industria-merkataritzako hondakinak, beren izaeragatik, osaeragatik edo aurkezpenagatik etxeko hondakinekin parekatzen ez direnak, hau da, beren jarduera ekonomikoagatik sortu direnak.
- c. Erabiltzen ez diren pneumatikoak, jarduera ekonomikoetatik datozenak.
- d. Nekazaritza eta abeltzaintza ustiatagietako hondakinak, hildako animaliak barne.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

- e. Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin sanitarioen kudeaketari buruzko martxoaren 3ko 21/2015 Dekretuaren II. eta III. taldeetako hondakin klinikoak.
- f. Gizakiek kontsumitzeko ez diren animalia azpiproduktu gisa kalifikatutako hondakinak, haragi ustiategi, harategi, arrandegi eta abarretakoak, urriaren 21eko 1069/2009 EE Erregelamenduaren arabera kalifikatuak (1069/2009 EE Erregelamendua, gizakiek kontsumitzeko ez diren animalia azpiproduktuei eta produktu eratorriari aplikatu beharreko osasun arauak ezartzen dituen).
- g. Hondakin likidoak edo likidotu daitezkeenak.
- h. Hondakin erradioaktiboak.
- i. Beren izaera, osaera edo ezaugarriak direla eta etxeko hondakinekin parekatu ezin diren bestelako hondakinak.
- j. Lehergai eta piroteknia hondakinak.
- k. Hondeatutako lurzorua.
- l. Hondakin urak.

15. artikulua. Helburuak.

1. Indarrean dagoen araudiak hondakinak berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzeko beste modu batzuetarako helburuak ezartzen ditu, ingurumena eta pertsonen osasuna babesteko.
2. Ondorio horietarako, Kuadrillak hondakinak biltzeko sistema bat du, eta sistema horren arabera, erabiltzaileek bereizita utzi behar dituzte hainbat aprobetxamendu izan ditzaketen hondakinak edo berariaz biltzeko komenigarritzat jotzen direnak.
4. Hondakinak behar bezala kudeatzeko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko, Kuadrillak Ordenantza honetan beharrezko neurriak ezartzen ditu jatorrian bereizketa areagotzeko eta bilketa zerbitzua optimizatzeko.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

16. artikulua. Bilketa zerbitzuan sartutako jarduketa orokorrak.

Bilketa zerbitzuak honako jarduketa hauek biltzen ditu:

- a. Hala badagokio, hondakinak ibilgailuetara edo hondakinak biltzeko beste baliabide batzuetara eramatea, hondakinen edukiontzietan edo sistema baliokideetan, bai eta azken horiek hustea eta jatorrizko puntuetara itzultzea ere.
- b. Hondakinak garraiatzea eta kudeaketa instalazio egokietan deskargatzea.
- c. Aurreko eragiketen ondorioz isuritako hondakinak kentzea.
- d. Edukiontziak eta eskualdeko beste bilketa gune batzuk mantentzea, garbitzea eta birjartzea, erabilera eskusibokoak diren edukiontziak izan ezik.
- e. Bilketa ibilgailuak mantentzea, garbitzea eta berritzea.

17. artikulua. Bilketa zerbitzuen modalitateak.

Ordenantza honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hondakinak biltzeko zerbitzua legez aurreikusitako edozein kudeaketa modalitatetan emango da, eta honako hauek barne hartuko ditu:

- a. Ohiko bilketa: nahitaez emateko zerbitzua, bost zatikietarako (organikoa, papera-kartoa, ontziak, beira eta errefusa, berrerabiltzeko edukiontzia), hondakinen ekoizleek zerbitzua eskatu beharrik gabe.
Kuadrillak udal hondakinen zatikien ohiko bilketa egingo du, honako modalitate hauetako baten edo batzuen bidez:
 - i. Behar bezala identifikatutako hondakin zatiki bakoitzerako edukiontzien bidez.
 - ii. Atez ate, hau da, hondakina soltean itxitako poltsetan edo eskuz eta husteko ekintza mekanikorik gabe deskargatzen diren bolumen txikiko ontzietan edo Kuadrillak adierazitako leku eta ordutegietan bide publikoan uzten diren fardeletan (kartoi-paperaren kasuan) uztea.
 - iii. Ezar daitezkeen beste sistema batzuk.
- b. Bilketa berezia: Ekitaldietan eta jaietan sortutako hondakinak erretiratzea, salbuespen gisa eta ohiko bilketa zerbitzua indartzeko.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

- c. Aparteko bilketa: udal eskumeneko hondakinak biltzea, lehen aipatutako ohiko bilketaren modalitatearen baten bidez jasotzen ez direnak.

Hondakin horiek finkaren oinean bilduko dira, zerbitzua emateko eskaera egin eta alde zuzenetik hitzordua eskatu ondoren. Horretarako, beharrezkoa izango da erabiltzailea Kuadrillarekin telefonoz harremanetan jartzea.

Zerbitzu horren erabiltzaileek eskualdeko bilketaguneetan emateko aukera izango dute.

18. artikulua. Edukiontzia, bitartekoak eta instalazioak

Kuadrillako zerbitzu teknikoek ezarriko dituzte edukiontzi motak eta erabili beharreko unitate kopurua. Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren 7. b) artikuluan ezarritako eskumenei jarraiki, Kontzejuek zehaztuko dituzte edukiontzien kokalekuak, baldin eta Kuadrillaren iritziz teknikoki bideragarria bada haiek proposatutako kokalekuetan jasotzea. Kontzejurik ez dagoen herrietan, udalek zehaztuko dute edukiontzien kokapena, arestian adierazitakoaren arabera. Hala eta guztiz ere, herrigune bakoitzean jarri beharreko edukiontzien kopurua zehaztea eta horiek handitzea edo murriztea Kuadrillaren erabaki esklusiboa izango da, eta hark hartuko du, beharrei buruz behar diren txostenak egin ondoren.

Herrigune edo, hala badagokio, udal bakoitzeko administrazio batzarrak bertan dauden edukiontzia zaintzen eta arau haustetzat tipifikatutako egintzak argitzen lagunduko du. Salbuespenezko eta justifikatutako kasuetan, edukiontzien puntuak eta unitate kopurua handitu ahalko dira.

Zerbitzua emateko, Kuadrillak, hondakin zatiki bakoitzaren bilketa sistemaren arabera, kasu bakoitzean beharrezkoak diren edukiontzia, bitartekoak eta instalazioak jarriko ditu hondakin zatikiak biltzeko, eta, beharrezkoa denean, horien mantentze lanez, garbiketaz eta berritzeaz ere arduratuko da. Edukiontzia eta biltzeko edozein bitarteko behar bezala identifikatuko dira, eta, beharrezkoa denean, kolore bereziarekin eta dagokion serigrafiarekin.

1. Kuadrillak, udalarekin edo administrazio batzarrekin lankidetzan, bide publikoan bilketa guneak eta, hala badagokio, edukiontzia kokatzeko erabakia hartuko du, irizpide hauek kontuan hartuta: efizientzia, ekonomia, antolaketa,

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

hurbiltasuna eta irisgarritasuna hondakinen erabiltzaileentzat, eta osasun eta segurtasun publikoa –pertsonek eta ingurumena–.

2. Aurreko apartatuan adierazitakoa galarazi gabe:
 - a. Bilketa sistemaren arabera, hondakinen ekoizleek, salbuespen gisa, Kuadrillari edukiontzi bat eskatu ahal izango diote, erabilera eskusiborako. Edukiontzi horiek Kuadrillak zehaztutako lekuan eta maiztasunarekin jarriko dira, eskualdeko bilketa zerbitzuak hondakinak biltzeko.
 - b. Era berean, Kuadrillak erabilera eskusiboko edukiontzi bat erostera behartu ahal izango ditu auzotarren komunitateak edo familia bakarreko etxebizitzaren titularrak, baldin eta, zerbitzuaren efizientzia eta eraginkortasun irizpideei jarraiki, erabilera kolektiboko edukiontzirik jartzen ez den eremuetan badaude, Kuadrillak hala erabakita. Bi kasuetan, erabiltzaileari edo bizilagunen komunitateari dagokio edukiontzi horiek mantentzea, garbitzea eta berritzea.
 - c. Merkataritzako hondakin ez arriskutsuak biltzeko eskualdeko zerbitzuari atxikitako establezimenduen kasuan, Kuadrillak, zerbitzua erabiltzen duen zatiki bakoitzean sortutako hondakinen bolumenaren arabera, bereizita biltzeko edukiontziak erostera eta erabiltzera behartu ahal izango ditu, Kuadrillak ezarritako ezaugarriekin, bilketa zerbitzuarekin bateragarriak izan daitezten.

Aurreko kasuetako edozeinetan, Kuadrillak zehaztuko du bilketa guneak eta, hala badagokio, edukiontziak bide publikoan non kokatuko diren, irizpide hauek kontuan hartuta: efizientzia, ekonomia, hurbiltasuneko antolaketa eta hondakinen erabiltzaileentzako irisgarritasuna, eta osasun eta segurtasun publikoa.

3.- Beharrezkoa denean, Kuadrillak edukiontziak kokatzeko onartzen duen protokoloaren arabera, metalezko elementu edo egituren bidez finkatuta egon beharko dute, horiek lekuz aldatzeko arazorik izan ez dezaten. Euskarri horiek administrazio batzarrek jarri beharko dituzte, Kuadrillaren oniritziarekin.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

Bigarren puntuko b) eta c) apartatuetan aurreikusitako kasuetan izan ezik, horietan auzotarren komunitateak, familia bakarreko etxebizitzak eta establezimenduak arduratuko baitira aipatutako finkapena bere gain hartzeaz eta egiteaz.

19. artikulua. Hondakinen bereizketari eta bilketari buruzko informazioa.

Kuadrillak argitara emango ditu zerbitzua emateko baldintzak, eta, bereziki, honako hauei buruzkoak: biltegiratze egunak eta ordutegiak, hondakin zatikiak biltzeko modalitateak, emateko baldintzak eta puntuak, eta zerbitzua behar bezala erabiltzeko egokitzat jotzen duen beste edozein.

20. artikulua. Hondakinak bereizteari eta biltzeari buruzko sentsibilizazioa, hezkuntza eta informazioa.

1. Kuadrillak kanpainak, programak eta bestelako jarduketak sustatuko ditu, herritarrek kontsumo ohituren inguruan sentsibilizatu, hezi eta informatzeko, hondakin gutxiago sortzeko, hondakinak jatorrian zatiki bidez bereizteko eta dagokion ontzian uzteko, bai eta zaborra sakabanatuta sortzea prebenitzeko ere.
2. Aurreko paragrafoetan adierazitako jarduketak aurrera eramateko, Kuadrillak, besteak beste, lankidetzak hitzarmenak eta akordioak sinatu ahal izango ditu subjektu publiko eta pribatuekin, hala nola unibertsitateekin, ingurumena babestea xede duten irabazteko xederik gabeko erakundeekin, ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistemekin eta enpresa elkarteekin.
3. Kuadrillak, hondakinak bereizita biltzeko eta haien hobekuntza sustatzeko betebeharrak justifikatzeko, bildutako hondakin zatiki bakoitzari ematen zaion azken tratamenduaren berri emango du sentsibilizazio eta informazio kanpainetan eta jarduketetan, eta bere web orriaren bidez, Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan, baita horiek hondakinen kudeaketatik eratorritako diru sarreretan eta gastuetan duten eragin ekonomikoaren berri ere.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

II. KAPITULUA. EDUKIONTZIEN BIDEZKO BILKETA

21. artikulua. Bilketa zerbitzua

1. Kuadrillak edukiontzien bidez hondakinak biltzeko zerbitzu arrunta ezarri du, eta erabiltzaileak zerbitzu hori behar bezala erabili beharko du. Hondakinak biltzeko zerbitzuak honako eragiketa hauek hartuko ditu:
 - a. Edukiontziak bilketa ibilgailuetara eramatea.
 - b. Edukiontziak hustea.
 - c. Edukiontziak, hustu ondoren, ohiko kokalekura itzultzea.
 - d. Eragiketa horien ondorioz bide publikora isuritako hondakinak garbitzea.
 - e. Hondakinen garraioa eta deskarga Kuadrillak horretarako prestatutako tratamendu zentroetan.
 - f. Edukiontziak garbitzea eta mantentzea.
2. Edukiontzi mota, erabili beharreko unitate kopurua eta horien kokapena Kuadrillak ezarriko ditu. Behin Kuadrillak edukiontzi gune bat ezarri duenean, ezin izango da aldatu, Kuadrillako zerbitzu teknikoaren berariazko baimenik gabe, Ordenantza honen 18. artikuluan xedatutakoaren arabera.
3. Erabiltzaileek ezingo dituzte edukiontziak lekuz aldatu.
4. Jabetza publikoko edukiontzien kasuan, Kuadrillak berriro egingo ditu. Ohiko erabileraren ondorioz konpondu ezin diren hausturak badituzte edo desagertu badira, dagokion zehapen espedientea izapidetzea eragotzi gabe, eragindako kalteen kargua erabiltzaileari egotzi ahal izango zaio kalte ordain gisa, baldin eta edukiontzi horiek zerbitzurako erabili ezinik geratu badira behar ez bezala erabiltzeagatik (gehiegizko pisua, manipulazio desegokia, etab.).
5. Zamaletarako eta zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren gainerako eragiketarako espazio libre bat gera dadin, Kuadrillak zehaztuko du non jarri beharko dituzten administrazio batzarrek babes hesiak edo barrak, hargatik eragotzi gabe hiri espazioko pasabideak eta erreserba bereziak jartzeko eskatzea. Instalazio gastuak eta mantentze eta berritze lanak administrazio batzarren kontura izango dira.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

6. Edukiontzia jabetza pribatuen barruan jarri ahal izango dira, titularrak hala eskatuta, baldin eta bilketa aldaketarik gabe egin badaiteke eta zerbitzuko ibilgailuak oztoporik gabe sartu ahal badira.
7. Ezinbesteko zioak edo interes publikoko arrazoiak direla medio, edukiontzien kokapena aldi baterako aldatu behar bada, Kuadrillak, bere kabuz edo udalek, administrazio batzarrek edo beste interesdun batzuek eskatuta, kokaleku berriari eta epeari buruzko ebazpena emango du, lekualdaketa eragin zuen arrazoiak desagertu ondoren, jatorrizko lekuetan birkoka daitezzen.

22. artikulua. Sarbidea kontrolatzeko eta erabiltzailea identifikatzeko sistema.

1. Berrerabiltzeko, birziklatzeko eta indarreko legerian jasotako beste balorizazio modu batzuetarako helburuak lortze aldera, pixkanaka, erabiltzailea sartzeko eta identifikatzeko kontrol sistemak instalatu ahal izango dira edukiontzietan eta postontzietan, edukiontzi eta/edo postontzi bakoitzeko datuak biltzeko eta erregistratzeko aukera emango duten irekitzeko gailuen bidez, arau helburuak lortzeko duten erabilera maila ezagutzeko, bai eta zerbitzua eta emaitzak sustatzeko jarduerak egiteko ere.
2. Irekitzeko gailuen erabilerari eta erabilgarritasunari buruzko irizpideak ondorengo araudi edo erregelamenduetan ezarri beharko dira.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

III. KAPITULUA. BILKETAREN ANTZEKO BESTE SISTEMA BATZUK

23. artikulua. Bilketaguneak

23.1 Bilketagune finkoa edo Garbigunea

1. Arabako Foru Aldundiak, Kuadrillarekin lankidetzan, eskualdea osatzen duten udalerrri guztietako (Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezu, Lagran, Urizaharra eta Harana) herritarren eskura jartzen du Kanpezun kokatutako Garbigune izeneko instalazio finko bat.
2. Garbigunearen helburuak hauek dira:
 - a. Bilketa zerbitzua osatzea, ohiko sistemek bildu ezin dituzten hondakinak entregatzea ahalbidetuz.
 - b. Kuadrillak hondakinak kudeatzen laguntzeko azpiegitura izatea.
 - c. Berrerabilera bultzatzea.
 - d. Konpostajea bultzatzea.
3. Garbigunearen zerbitzua Arabako Foru Aldundiak kudeatuko du zuzenean, Kuadrillarekin lankidetzan, legerian aurreikusitako aukerak erabiliz.

23.2 Bilketagune mugikorra

Kuadrillak herritarren eskura jarri ahal izango du bilketagune mugikorren zerbitzua, bai eta 1. paragrafoan adierazitako garbiguneez bestelako instalazioena ere – esaterako, landa bilketaguneak-. Horietan, zehazten diren etxeko hondakinak bota ahal izango dira, zehazten diren maiztasun eta kokalekuekin.

24. artikulua. Garbigunearen kudeaketa.

1. Garbigunearen zerbitzua doakoa da etxeko erabiltzaileentzat.
2. Arabako Foru Aldundiak, Garbigunea kudeatzen duen erakundeak, bere gain hartuko du Garbigunearen funtzionamendua, Kuadrillarekin adostuta, eta Garbigunean eman daitezkeen hondakin moten zerrenda argitaratuko du.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

25. artikulua. Garbigunean onartutako hondakinak.

1. Garbigunean etxeko hondakin hauek utzi ahal izango dira:
 - a. Sukaldeko olio erabiliak.
 - b. Ehun hondakinak (arropa, oinetako erabiliak eta etxeko bestelako ehunak).
 - c. Pila eta metagailuen hondakinak, berun-azidozko baterietakoak barne.
 - d. Tamaina handiko hondakinak, hala nola altzariak eta tresnak.
 - e. Obra txikietako eta etxez etxeko konponketako eraikuntza eta eraispen hondakinak, amianto dutenak edo erradioaktiboak izan ezik.
 - f. Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, lanpara eta argi hondakinak barne.
 - g. Inausketak eta lorezaintzako beste hondakin batzuk.
 - h. Erradiografiak.
 - i. Kristalak, hala nola edalontziak, platerak, kopak, leiho eta ateetako kristalak.
 - j. Aerosolen eta espraien hondakinak eta produktua.
 - k. Presiozko ontzien hondakinak.
 - l. Kutsatutako ontzien hondakinak (gai kutsatzaileak, hala nola pinturak, bernizak, disolbatzaileak, pestizidak, libragailuak eta abar, dituzten produktuak edukitzeagatik edo eduki izanagatik).
 - m. Etxeko hondakin arriskutsuak.
 - n. Erabiltzen ez diren pneumatikoak, erabiltzen ez diren pneumatikoak bilketaguneetan biltzeko prozeduraren arabera, 1619/2005 Errege Dekretuaren 13. artikulua arabera.
 - o. Bolumen handiko hondakinak.
 - p. Ordenantza hau garatzeko arauetan Kuadrillak berariaz zehazten dituen beste hondakin batzuk.
2. Kuadrillak, Arabako Foru Aldundiarekin koordinatuta, herritarren eskura izango du beti Garbigunean eta, hala badagokio, bilketagune mugikorretan utz daitezkeen hondakinen zerrenda, bai eta ordutegi eta funtzionamendu egunei, onartutako gehieneko bolumenari eta uzteko moduari buruzko informazioa ere.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

26. artikulua. Bilketaguneen erabiltzaileak.

1. 25. artikuluan zerrendatutako hondakinak biltzeko garbigunea eta, hala badagokio, bilketagune mugikorrek Kuadrillako edozein udalerritan helbideratutako partikularrek edo etxebizitzaren titular direnek erabili ahal izango dituzte, hurrengo 2.b) apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe.
2. Ordenantza hau garatzeko arauen bidez, garbigunearen eta, hala badagokio, bilketagune mugikorren erabilerari buruzko honako zehaztapen hauek ezarri ahal izango dira:
 - a. Entrega bakarrean utzi ahal izango diren hondakinen gehieneko kopurua mugatu.
 - b. Enpresa txikiei edo autonomoei erabilera baimendu, baldintzak eta hondakin zehatzak eta gehienez ere zenbat bota dezaketen adierazita.
 - c. Zuzenbidean onartutako edozein bide erabiliz, biltegitatu beharreko hondakinak etxetik datozela egiaztatzen duten agiriak eskatu.

27. artikulua. Etxeko eta komunitateko konpostajea.

1. Hondakinak sortzea prebenitzea (legedian ezarritako hondakinen kudeaketaren hierarkiaren lehen maila) sustatzeko eta, aldi berean, autosufizientziako eta hurbiltasuneko legezko printzipioa betetzeko, Kuadrillak behar diren neurriak hartuko ditu biztanleek lurraldean bertan sortutako biohondakinen konpostajea bultzatzeko. Era berean, Kuadrillak beharrezko neurriak hartuko ditu lurraldean bertan sortutako konposta erabiltzeko.
2. Ordenantza honek ezartzen duenez, biohondakinen ekoizleek nahitaez jatorrian banandu beharko dituzte eta, bestela, Ordenantza honen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera.
3. Biohondakinak etxean edo komunitatean konpostatuz *in situ* tratatzen dituzten biohondakinen ekoizleek aplikatu beharreko araudian –autonomikoan edo estukoan– ezarritako informazioa eman beharko diote Kuadrillari. Era berean, Kuadrillak etxeko konpostajea egiten duten pertsonen zerrenda eguneratua

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

izango du formatu elektronikoa, baita komunitateko konpostaje guneena ere, aplikatzekoa den araudian –autonomikoa edo estatukoa– zehaztutakoaren arabera.

4. Biohondakinen tratamendua *in situ* egiten duten biohondakinen ekoizleek, dela etxeko konpostajearen bidez, dela komunitateko konpostajearen bidez:
 - a. Dagokion hobari fiskala lortu ahal izango dute.
 - b. Ezingo diote biohondakinik eman bilketa zerbitzuari.

IV. KAPITULUA. HONDAKINAK BILTZEARI BURUZKO XEDAPENAK

28. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Kapitulu honetan ezarritako neurriak udal eskumeneko hondakin guztiak biltzeari dagokionez aplikatuko dira, bai zerbitzua nahitaez ematen bada, bai, hala badagokio, nahi izanez gero, Ordenantza honen 1. artikuluan ezarritakoaren arabera egiten bada.
2. Horrela, Ordenantza honen 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, Kuadrillak baldintza bereziak ezarri ahal izango ditu udal eskumeneko hondakinak biltzeko, zerbitzua bilketa bereziko araubidean emateko beharra barne, 17.b artikulua arabera.
3. Udal eskumeneko hondakinen ekoizleek, Ordenantza honen 6. artikulua arabera, Ordenantza honetan jasotako moduren batean utzi beharko dituzte hondakinak, kapitulu honetan ezar daitezkeen betebeharrak gehigarriak eragotzi gabe.

29. artikulua. Jarduera ekonomikoen ondorioz sortutako hondakinak biltzeko berariazko xedapenak.

1. Jarduera ekonomikoak gauzatzearen ondorioz sortzen diren udal eskumeneko hondakinen ekoizleek honako modu hauetakoren batean kudeatu beharko dituzte

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

hondakinak:

- a. Hurrengo artikuluetan aurreikusitako biltzeko metodoren bat erabiliz, hondakin motaren arabera, Kuadrillak adierazten duen bezala.
 - b. Kudeatzaile baimendu edo biltzaile erregistratu bati edo gehiagori emanez, azken horren kasuan, kudeatzaile baimendu bati emango zaiola bermatzen badu.
2. Aurreko 1. apartatuko a) letrako kasuetan, Kuadrillak zehaztu ahal izango du zer baldintzatan emango den bilketa zerbitzua.
 3. Artikulu honetan ezarritakoa Kuadrillak, nahitaez zein nahi izanez gero, bilketa zerbitzua ematen duen hondakin guztiei aplikatuko zaie, baldin eta sektoreko establezimenduetan, zerbitzuetan edo bestelako jarduera ekonomikoetan sortzen badira.
 4. Ordenantza honen 13. artikulua arabera udal eskumenekoak ez diren hondakinen ekoizleek kudeatzaile baimendu edo biltzaile erregistratu bati edo gehiagori emanez -azken horren kasuan, kudeatzaile baimendu bati emango zaiola bermatzen badu- emanez kudeatu beharko dituzte hondakinak, eta ez dituzte udal bilketa zerbitzuak erabiliko. Nolanahi ere, arriskutsuak ez diren merkataritza hondakinen ekoizleek 7/2022 Legearen 20.3 artikuluan ezarritakoa bete beharko dute.
 5. Kuadrillak egiaztatu ahal izango du jarduera ekonomikoen ondorioz sortutako hondakinak dauzkatenez bete behar dituzten ekoizlearen erantzukizun zabalduaren ondoriozko betebeharrak betetzen direla, eta balizko ez betetze egoerak aurkeztu ahal izango dizkio EAEko organo eskudunari.

I. ATALA. OHIKO BILKETAK

30. artikulua. Biohondakinen bereizitako bilketa.

1. Biohondakinen ekoizleek nahitaez bereizi beharko dituzte jatorrian.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

2. Etxeko edo komunitateko konpostajearen bidez biohondakinak *in situ* tratatzen ez dituzten biohondakinen ekoizleek honako alderdi hauek bete beharko dituzte:
 - a. Biohondakinak poltsa konpostagarrietan, edukiontzietan edo helburu horretarako identifikatutako, erabilera kolektiboko edo erabilera eskusiboko beste sistema baliokide batzuetan uztea, erabiltzaileen etxeetan edo haien inguruetan daudenetan.
 - b. Poltsa konpostagarriek Europako EN 13432:2000 araua bete beharko dute, edo Europako edo estatuko konpostaje prozesuaren bidezko beste biodegradazio estandar batzuk.
 - c. Gainera, ekitaldi publikoak direla eta sortzen diren biohondakinak Kuadrillak horretarako prestatutako edukiontzietan utzi ahal izango dira.

31. artikulua. Ontzi arinen hondakinen bereizitako bilketa

1. Oro har, 1055/2022 Errege Dekretuaren 2.m) artikuluaaren arabera etxeko ontzietako hondakintzat hartzen diren ontzi arinen hondakinak, halakotzat hartuta plastikozko ontziak –edariantzako botilak, plastikozko poltsak eta 7/2022 Legearen IV. eranskineko F apartatuan zerrendatutako plastikozko produktuak barne–, metalezkoak –burdinazkoak edo aluminiozkoak, bereziki kontserba latak eta edari latak–, eta brikak, edukiontzietan edo erabilera kolektiboko edo erabilera eskusiboko beste sistema baliokide batzuetan utzi beharko dira nahitaez, erabiltzaileen etxeetan edo haien inguruetan daudenetan. Era berean, ontzi arinen hondakinak horretarako prestatutako edukiontzietan utzi ahal izango dira.
2. Botilak, poteak, latak eta materia organikoaren hondarrak dituzten bestelako ontziak, hala nola elikadura hondarrak edo bestelako substantziak, erabat hustu beharko dira biltegitara aurretik, substantzia horien hondarrak ezabatzeko.
3. Artikulu honetako 1. apartatuan adierazitakoa gorabehera, Kuadrillak erabaki ahal izango du 7/2022 Legearen IV. eranskineko E zatian aipatzen diren plastikozko botilak (gehienez hiru litroko edukiera duten edariantzako botilak, horien tapa eta tapoiak barne) bananduta jaso behar izatea, bereizita edo bananduta bildutako beste hondakin zatiki batzuekin batera. Paragrafo honetan

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

ezarritakoa aplikatu behar denean, Kuadrillak adieraziko du zer baliabide zehatzetan utzi behar diren ontzi hondakin horiek.

32. artikulua. Paper eta kartoi hondakinen bereizitako bilketa (material horretako ontziak barne)

1. Oro har, etxeko hondakintzat hartzen diren paper eta kartoi hondakin garbiak – etxeko hondakintzat hartzen diren ontzien hondakinak nahiz ontzikoak ez diren hondakinak, hala nola prentsako papera– edukiontzietan edo helburu horretarako identifikatutako, erabilera kolektiboko edo erabilera eskusiboko beste sistema baliokide batzuetan utzi beharko dira nahitaez, ahalik eta tolestuen, erabiltzaileen etxeetan edo haien inguruetan. Zuzenean utziko dira eta, behar izanez gero, paperezko poltsetan.
2. Bereziki, kartoizko kutxak behar bezala moztu eta tolestuko dira edukiontzietan sartzeko eta kokatzeko, ahalik eta leku gutxien hartuz.
3. Bota aurretik, hondakin horietatik hondakin organiko, ehunezko, metalezko edo plastikozko hondakin guztiak kendu beharko dira, baita paper eta kartoi zikinekoak ere. Hondakin horiek Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera bota beharko dira.

33. artikulua. Beirazko ontzien hondakinen bereizitako bilketa.

1. Oro har, etxeko hondakintzat hartzen diren beirazko ontzien hondakinak edukiontzietan edo helburu horretarako identifikatutako, erabilera kolektiboko edo erabilera eskusiboko beste sistema baliokide batzuetan utzi beharko dira nahitaez, erabiltzaileen etxeetan edo haien inguruetan daudenetan. Zuzenean botako dira eta poltsarik gabe.
2. Edukiontzian utzi aurretik, beirazko ontzietatik bereizi eta dagokion edukiontzian utzi beharko dira estalkiak, tapoiak, bilgarriak eta beirazko bilgarriaren hondakinetik bereizita bota daitekeen beste edozein elementu.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

Ondorio horietarako, aipatutako elementu bereizi horiek metalezkoak (burdinazkoak edo aluminiozkoak) edo plastikozkoak direnean, ontzi arinen hondakinen edukiontzian utziko dira, eta beste materialezkoak direnean (hala nola kortxoak edo ehunak), biohondakinen edukiontzian botako dira, biodegradagarriak badira, edo ehunen edukiontzian, hurrenez hurren.

3. Era berean, edukiontzian edo sistema baliokidean utzi aurretik, beirazko ontzietako hondakinak hustu beharko dira, bertan gera daitezkeen substantzia hondarrak ezabatzeke.

34. artikulua. Beste zatiki batzuetan sartu ez diren hondakinen bilketa -errefusa-

1. Hondakinen ekoizleek Ordenantza honen IV. kapituluko 1. eta 2. atalen arabera beste zatiki batzuetan berezita jasotzen ez diren hondakinak, hau da, "errefusa" izenekoak, edukiontzietan edo helburu horretarako identifikatutako, erabilera kolektiboko edo erabilera eskusiboko beste sistema baliokide batzuetan utzi beharko dituzte, erabiltzaileen etxeetan edo haien inguruetan daudenetan.
2. Errefusa poltsa itxietan utziko da, isuriak eragozteko bezain erresistenteak diren poltsetan.

Bereziki, zatiki horretan utzi beharreko hondakinen artean daude barbakoen eta etxe partikularretan erabilitako biomasa galdaren edo landare ikatzaren funtzionamenduaren ondorioz sortutako errautsak eta zaborrak. Debehatuta dago hondakin horiek erabat hoztu baino lehenago botatzea, baita txingar goriak botatzea ere.

2. ATALA. APARTEKO BILKETAK

35. artikulua. Udal eskumenekoak diren sukaldeko olio erabilien berezitateko bilketa.

